

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” - 2015

Azpi-egitasmoak:

- Gurasoei begirako kanpaina
- Familien arteko lehiaketa.
- “Euskaraz oparitu”



AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “Gurasoei begirako kanpaina”

- 3.1.1.- Oinarriak
- 3.1.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.1.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.1.4.- Aurrekontua

3.2.- “Familien arteko lehiaketa erraldoia-2015”

- 3.2.1.- Oinarriak
- 3.2.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.2.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.2.4.- Aurrekontua

3.3.- “Euskeraz oparitu” kanpaina.

- 3.3.1.- Oinarriak
- 3.3.2.- Eragileak eta baliabideak
- 3.3.3.- Xede taldea eta adierazleak
- 3.3.4.- Aurrekontua

4. KRONOGRAMA

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

Eranskinak

- I. Eranskina: Gurasoei banatutako fitxa.**
- II. Eranskina: URE elkartearekin hitzarmena (eredua)**
- III. Eranskina: Euskara oparitu kanpainako orria**



1.-SARRERA

Egitasmo orokor bat dugu “Familiabidezko jarraipena” dinamizazio proiektua eta horren barruan txertatzen ditugu zenbait azpiegitasmo. Aurtengoan aurrekontu murriztagoen menpe, esparru honetan ekiteari ezin utzi, baina ezin horren zabal jardun.

Ohizko azpi egitasmoei eutsiko zaie eta, askotan, Euskara Zerbitzuak bereak dituen baliabieekin burutu beharko. Hona hemen familiabidezko jarraipenerako egitasmo orokor honen baitan 2014an izango diren azpi egitasmoak:

- **“Gurasoei begirako kanpaina”:** Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainen batek hartuko dugu (eman giltza, emaiouzu bizia), daukagun materiala osatzeko. Horrez gain, atal honetan daukagu aintzat hartuta “Gurasoentzako ikastaro bereziak” deituriko azpiegitasmoa.
- **Familien arteko lehiaketa erraldoia** (3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei begirakoa). 2012 eta 2013 urteetan diru faltagatik baztertu eta, gurasoen aldetik izan diren kexa eta eskakizunak bitarteko, 2014an berreskuratu zen azpiegitasmoa, lehentasuna eman zitzaiolako; 2015ean eutsiko zaio eta indartzeko asmoa daukagu. Horretarako, URE elkartearekin sinatuko da hitzarmena.
- **“Euskaraz oparitu” kanpaina:** hau ere Alkarbidek koordinatzen du; 2014an ez dugu Euskarazko Produktuen Katalogoan parte hartu, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu dugu, dendariekikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua). 2015ean beste horrenbeste egiteko asmoa daukagu.

2.- HELBURUAK

“FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA” deituriko proiektu hau, aipatu lau azpi-egitasmoekin osatzen dena, 2014-2017 epean indarrean egongo den Euskara Sustatzeko Ekintza Planean aintzat harturiko neurri eta ekintzekin bat dator.

Egitasmo orokor honen arabera 2015eko Kudeaketa Planean txertatu diren zenbait helburu, neurri eta ekintza bete nahi dira:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa Esparrua / Neurria / Ekintza

1. Familia bidezko transmisioa

1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)

1.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea

- 1.1.4.1.-Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak,# (SOBREA /MATERIALA: ku-ku, guraso elebidunen eskuliburua,#)
- 1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneeetan eskuragarri jarri#

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)

1.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea

- 1.3.1.1.- "Euskera olgetan errotu" kanpaina burutu, gurasoak eta umeak batera jolasean

Helburu estrategikoa: Helburu guztietarako zehar-lerroak Esparrua / Neurria / Ekintza

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.2. Familia transmisioa (Toki erakundeak)

14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

- 14.2.1.1.- Guraso eta aitona.amonenganako sentsibilizazio kanpaina burutu, ikastalde eta ikastaro bereziak sortzeko

Gurasoentzat ikastaro bereziak antolatzen dira 14.2.1.1. azpiekintzari jarraiki eta Berbalagun egitasmoarekiko loturak ere lantzen dira Guraso Elkarteekin. Diru laguntzei dagokienean, gurasoei ere zabalkunde berezia egiten zaie.



3- AZPI-EGITASMOAK

3.1.- “GURASOEI BEGIRAKO KANPAINA”

Alkarbidek urtero koordinatzen dituen kanpainetan parte hartuko dugu (eman giltza, emaiizu bizia), aurreko urteetan jasotako materiala osatzeko (KU-KU argitalpena -abesti bilduma-, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka).

Jarraitu egingo da gurasoei ikastaro bereziak eskaintzen eta horretarako sentsibilizazio kanpaina berezi bat burutuko da.

3.1.1.- OINARRIAK

- “Ondorengoetaratze kanpaina”-ko soberan dagoen materiala banatuko zaie jaioberrien gurasoei: gutuna, ume elebidunen gurasoentzako aholku liburuxka, oparia, ku-ku liburuxka.
- Gurasoei begirako euskarazko klaseak (AEK euskaltegiarekin elkarlanean).
- Anbulatorioarekin elkarlana, han ere jaioberrien gurasoei materiala banatzeko.

3.1.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Udal Eskola Kontseilua eta guraso elkarteak.
- AEK euskaltegia (gurasoentzat eskainitako klaseak).
- Udaleko Erregistro eta Estatistika saila (jaioberrien gurasoei materiala)
- Anbulatorioko pediatria eta emaginaren zerbitzuak.

- Baliabideak:

- Diru iturriak Euskara Zerbitzuarenak.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuarenak (HNT1), anbulatoriokoak (pediatria eta ginekologiako erizainak -2- eta emagina), eskoletako euskara arduradunak (gurasoei begirako kanpaina bideratzeko), euskaltegiak irakasleak (ikastaro bereziak), Udal Erregistroko arduraduna.
- Erabiliko diren euskarri nagusiak, materiala:
 - Gutuna (jaioberrien gurasoei)
 - Gurasoen ikastaldea eratzeko gutuna/fitxa (zabalkundea)
 - “Ku-Ku” haur kantak.



- Ume elebidunen gurasoentzako aholkuen liburuxka.
- Emaiozu bizia liburuxka eta DVDa

3.1.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERALEAK

Xede taldea :

- 0-1 urte bitarteko umeen gurasoak (400), ondorengoetaratze kanpainaren materiala jasoko luketenak, eta anbulatorioaren bitartez eraginpean izango direnak.
- 14 urtera arteko umeen gurasoei eskainiko zaizkie ikastaro bereziak eta eurei zuzenduko zaie informazioa (2.500 ikasle, 5.000 guraso inguru).

Adierazleak::

- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta etxe barrurako eragina duen jakitea ezinezkoa zaigu une berean. Ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzari buruzko neurketen emaitzei jarraipena egiten diegu.
- Euskarazko klaseei dagokienean, klaseetan parte hartu dutenen kopuruak (2013-2014 ikasturterako 50 bat guraso daude izena emanda).
- Anbulatorioarekin sakondu beharrekoak ez dakigu nolako eragina izango duen, finkatzeke daude konpromisoak eta.

Ama-hizkuntza euskara (%)

UDALERRIA	1986	1991	1996	2001	2006	Aldea
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	-5,38
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	-8,70
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	-17,98
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	19,30	-1,3

Iturria: Eustat

Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi egin da 1986-2006 urte bitartean Gernika-Lumon (% 5,38 gutxiago).

Euskaldunen kopuruak gora egin eta erdaldun elebakarrenak behera egin duen arren, etxeko erabilerak ez du neurri berean gora egin.

Beldur gara ez ote duen **familiak ikastetxea hartuko hizkuntza ohiturak finkatzeko erreferente bakartzat**. Beharrezko da, hargatik, familietara beste bide batzuetatik ere ailegatzea.



Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean zehar

Lagina	468 harreman gurasoekin eta 311 harreman haurrekin (ekainean zehar)	
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak eskualderako zerbitzua ematen duelako
Gurasoak atzerritarrak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berriak biztanleriaren %10a baino izan ez arren, pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara (zerbitzuko langileen motibazioa bitarteko? Bertako langileek euskaraz egin eta euren “prestigioa”-k erakarrita? Asertibitatea?) Datu honek, udalerriko euskaldunen portzentajea gaintitu egiten du (%67,87) eta helduen kaleko erabilera ere nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere (%69,10) gaintitu egiten da. Pediatriara joan diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen portzentajeak berdina dira (%85); horrek adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100koa izan dela.
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarrak dituzten umeen multzotik datorrela esan dezakegu, hizkuntza integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; gainera, atzerritarren bisiten portzentajea %15 izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola gune horretan.

3.1.4.- AURREKONTUA (gurasoei begirakoa)

Ondorengoetaratze kanpainako zabalkundea (materiala)	2.000
Gurasoei euskarazko ikastaro bereziak	8.000
	10.000

3-2 FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA ERRALDOIA ("EUSKERA OLGETAN ERROTU")

Azpi egitasmo hau berreskuratzeko ahalegin berezia egin da 2014an, 2012 eta 2013 urteetako etenaren ostean, gurasoen aldetik jaso diren eskaera bereziak bitarteko. Esparru ez formalean euskararen erabilpenerako azpiegitasmo honek sortzen dituen baldintzak eta eragina kontuan hartuta, berreskuratu beharrean gaude, ahaztu barik familia osoari begirako dugun egitasmo bakarra dela.

3.2.1.- OINARRIAK

- Lehiaketa formatoa duen egitasmoa dugu, baina ez konpetitiboa, baizik eta gurasoak umearekin gainditu beharreko froga batzuetan oinarritua. Sariak guztientzat.
- Guraso euskaldunak eta erdi-euskaldunak beraien seme-alabekin bikoteka aritzea, froga desberdinak bitarteko: euskal jokoak, txisteak, bertsoak, abestiak, galderak, mimika. Puntuak pilatuz, sariak lortzen dira.
- 3 ekitaldi izango dira: azaroan bi eta abenduan beste bat (azken saioan, sari-banaketa eta jaialdi nagusia).

3.2.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- URE Elkartea Udalaren laguntzarekin lehiaketa antolatzeko arduraduna izango da. (Hitzarmena): 10 monitore arduratzen dira garapenaz.
- Diru iturriak (Euskara Zerbitzua). Kanpaina hau burutzeko Euskara Arloko aurrekontuan 5.350 €ko gastua aurreikusiko da (hitzarmenean aintzat hartutako konpromiso ekonomikoa).

3.2.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

- Familien lehiaketa erraldoia antolatzeko, 3-6 urte bitarteko haurren etxeetara (600 bat) bidaliko da informazioa (eskutitza, bi orrikoa, izena emateko fitxa) eta jarraipena egiteko, egun bakoitzako ebaluazio-fitxa bat

beteko da (partaide diren familien kopurua, adina, ekintzaren eta ordutegiaren egokitasuna ...).

- Gurasoen xede taldea umeen bikoitza (1.200) izango da gutxi gora-behera. Ezinbesteko baldintza izango da gurasoa eta umea batera aritzea.

Adierazleak:

- Parte hartuko duten ume (izen-abizenekin zerrendatutakoak 200 bat izan dira aurreko urteetan) eta gurasoen kopuruak eta landutako unibertsoarekiko portzentajea.
- Egun bakoitzean parte hartuko duen ume eta gurasoen kopuruaren arabera, hizkuntza erabilera neurtzeko erabiltzen diren euskaldunen dentsitate eta abarretako irizpideei jarraiki, euskararen erabilera esparru ez-formaletan areagotzeko baldintza egokiak finkatu diren neurtu.
- Eustatek ateratzen dituen datuetatik, ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren erabilerari buruzko portzentajeen bilakaera kontrolatzea.

3.2.4.- AURREKONTUA (familien arteko lehiaketa)

URE hitzarmena (antolaketa, monitoreak)	5.350
- Monitoreak (antolaketa+garapena).....	2.000
- Materiala.....	2.350
- Publizitatea/zabalkundea.....	Udala
- Sariak.....	1.000
GUZTIRA	5.350

3.3.- “EUSKARAZ OPARITU” KANPAINA

Sarrera idatzian esandakoa dakargu hona: “...*hau ere Alkarbidek koordinatzen du; 2014an ez dugu Euskarazko Produktuen Katalogoan parte hartu, baina kanpainarekin bat eginda, geure baliabideekin garatu dugu, dendariekikoa lehenetsiz (euskarazko produktuetan %5eko deskontua). 2015ean beste horrenbeste egiteko asmoa daukagu.*”

3.3.1.- OINARRIAK

- Euskarazko produktuen katalogorik zuzen ez, baina zeharkako zabalkundea egingo da: 3.000 orri berezi banatuko zaizkie LH eta DBHko ikasleei, euren etxeetara bideratuz.
- Jostailu denda guztietan kanpaina berezia burutuko da, 2014koaren parekoa (euskarazko produktuen salmentetan %5eko deskontua egitea adostu zuten) eta orduan erabilitako materialari etekina aterata. Hemen ere informazio orriaren beste 6.000 ale banatuko dira

3.3.2.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

- Eragileak:
 - Euskara Zerbitzua (egitasmoaren koordinazioa).
 - Ikastetxeak (7)
 - Jostailu / opari dendak (7)
- Baliabideak:
 - Euskara Zerbitzuak diruzkoak eta koordinaziorako giza-baliabideak (HNT1).
 - Ikastetxeetako zuzendariak (koordinaziorako bilkuretan parte hartuz).
 - Saltokietako arduradunak.

3.3.3.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

- LHko eta DBHko ikasleak bitarteko (3.000 inguru), gurasoek (6.000) etxean jasoko dute informazio orria.

- Jostailu dendariei begirako kanpaina: guztira 7 denda txiki eta handi, 2014an ere parte hartu zutenak.

Adierazleak:

- Materiala jaso duen ume kopurua xede taldearekin erkatuta.
- Sentsibilizazio kanpaina dugu eta bere eragina neurtzeko tresnak baliatzea oso zaila da. Dendariekin elkarlanean kanpainaren jarraipen zehatza egiteko adierazleak landu beharra dugunez, fitxa berezi batzuk prestatuko dira horretarako eta horietatik aterako diren datuetatik aterako ditugu ondorioak.

3.3.4.- AURREKONTUA (euskaraz oparitu)

Euskaraz oparitu kanpainarako orri berezia (6.000) banaketa	300
Kanpainaren publizitatea (Hitza, Oiz-mendi,...), ploterrak	700
Guztira gastuak	1.000

4.- KRONOGRAMA (2015)

“Gurasoei begirako kanpaina”	Urt.	Ots.	Mar	Api.	Maia	Ek.	Uzt	Ir.	Ur.	Az	Ab
Materiala sailkatu											
Fitxak zabaldu eta batu								2014	2014		
Gurasoen ikastaldeak eratu									2014		
Gurasoei ikastaroak eman										2014	2014
Anbulatorioa (banaketa/jarraip.)											
Udal Erregistroa (“ “)											
Jarraipena (eragileen batzarrak)											
Lehiaketa											
UREkin batzarrak											
Triptikoa											
Aurkezipena											
Zabalkundea											
Inskripzioa											
Ekitaldiak											
Euskeraz oparitu											
Dendariekin batzarra (2014ko balorazioa; hausnarketa)											
Dendariekin batzarra (2015eko kanpaina prestatzeko)											
Orri bereziaren banaketa / ploterrak)											

Egin behar batzuk ikasturtearen hasieran burutu behar dira eta 2014 urtea aipatzen da horietan.

5.- AURREKONTUA GUZTIRA

“Gurasoei begirako kanpaina”	10.000
Familien arteko lehiaketa	5.350
“Euskeraz oparitu” kanpaina	1.000
Gastuak guztira	16.350

Gernika-Lumon, 2015eko urtarrilean.

Naiara Urberuaga
Kult. Hezk. eta Euskara Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

I. Eranskina: Gurasoei banatutako fitxa.

CURSOS BASICOS DE EUSKERA PARA PADRES Y MADRES **(EUSKALDUNIZACION)** **EUSKARA IKASTAROAK GURASOENTZAT / ZAINZAILLEENTZAT**

El Area de Euskera del Ayuntamiento de Gernika-Lumo oferta cursos básicos de euskaldunización en colaboración con el Euskaltegi de AEK de Gernika con la finalidad de ofrecer unos **CONOCIMIENTOS BÁSICOS DE EUSKERA A LOS PADRES / MADRES NO EUSKALDUNES.**

- **Puedes ayudar en las tareas de casa a tus niñ@s.**
- **Puedes motivarles con tu actitud.**
- **Y te enriquecerás...**

Guraso erdal dunak ezagutzen dozu ala? Ba, animatu eizuz!

Características del curso:

- Grupos de un mínimo de 8
- Duración: de noviembre a junio (120 horas).
- Tres sesiones de una hora a la semana
- Precio: 60€ (material)
- **Prematrícula hasta el 10 de octubre.**

Ficha de prematrícula (a entregar en el centro escolar)
Aurre-matrikularako fitxa (eskolan aurkezteko)

Nombre y apellidos / Izen-Abizenak: _____
Centro escolar con el que se relaciona: _____
Zein ikastetxegaz daukazun lotura
Telefonoa: _____

<i>Cual es tu nivel de euskera?</i> Zein da zure euskera maila?	☐ Empiezo de cero / Ez dakit ezer ☐ Entiendo algo / Zeozer ulertzen dut ☐ He hecho algún cursillo / Ikastaroren bat egin dot
Indica con una X el horario que prefieres Adierazi X batez gurago dozun ordutegia	☐ Mañanas / Goizean ☐ Anochece / Iluntzean
Escoge tres días de la semana Aukeratu asteko hiru egun	☐ Lunes / Astelehena ☐ Martes / Martitzena ☐ Miércoles / Eguaztena ☐ Jueves / Eguena ☐ Viernes / Barikua

II. Eranskina: URE elkartearekin hitzarmena (2014ko eredua)

**URDAIBAI RUGBY ESKOLAK
ELKARTEAK ETA GERNIKA-
LUMOKO UDALAK ELKARLA-
NERAKO SINATURIKO HITZARME-
NA, “EUSKERA OLGETAN ERROTU-
FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA
ERRALDOIA-2014” JARDUERA
BURUTZEKO.-**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko-renan eta Erakundearen Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Patxi Bartolome Marques, adinekoa eta NAN zbk. 18.601.501-K duena, Urdaibai Rugby Eskola Elkartearen izenean (IFK: G-95161980).

Bestetik, Jose Maria Gorroño Etxebarrieta Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 211.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duenari.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa onartu zuen, 2003-2008 epean indarrean egon zena; 2008ko abenduaren 17an onarpena eman zion 2009-2013 eperakoari. Gaur egun, indarrean dago Euskara Gernika-Lumoko ESEP (Sustatzeko Ekintza Plana) 2014-2017 eperako..

Familiaren esparruarekin lotura daukan ekintza zehatza garatu izan da 2003tik hona eta 2014ko Kudeaketa Planean ere “familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak” deiturikoa aurreikusita dago.

II

Kontuan hartuta Urdaibai Rugby Eskola, sortu zenetik, Gernika-Lumoko Udalarekin elkarlanean aritu izan dela aisialdia sustatu asmoz beste egitasmo batzuk garatzen (“Asteburuetako aisialdia”, “Gaztelekuko zapatuak”).

III

Aipatutako guztiagatik, familiei begirako “EUSKERA OLGETAN ERROTU-2014” egitasmoa burutzearekin bat datozelarik, azken bi urteetako etenaldia salbu eta aurreko urteetako jokabideari jarraiki, Urdaibai Rugby Eskola Elkarteak eta Gernika-Lumoko Udalak honako ELKARLANERAKO HITZARMENA sinatzen dute finkatuz hurrengo

KLAUSULAK

Lehenena.- Urdaibai Rggby Eskola Elkartek konpromisoa hartuko du “EUSKERA OLGETAN ERROTU-2014” jarduera burutzeko, hitzarmen honi lotuta doan egitasmo bereziaren arabera (1. Eranskina).

Egitasmoa honako hauei zuzenduta dago: 3-6 urte bitarteko umeei eta euren gurasoei. Beraz, gutun-gonbidapen bidez egingo den zabalkundea burutzeko, 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaioen etxeetara bidaliko da. Horretarako, datuen babeserako legea kontuan hartuta, Gernika-Lumoko Udalak emandako etiketak erabiliko dira, izen-abizenik gabeak.

Bigarrenena.- Urdaibai Rugby Eskola Elkartek 2014ko azken hiruhilekoan ekingo dio lan honi Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean eta burutzapenerako kronograma hauxe izango da:

Jarduerak	Urria	Azaroa	Abendua
Antolaketa. (URE+EUSK. ZERB)	osoa	osoa	
Zabalkundea: gutunak etxeetara (URE)	20tik 22ra gutunak	3tik 6ra	
Prensa oharra / Prentsaurrekoa (URE+EUSK. ZERB.)		10, 12	
Zabalkundea: kartelak (URE)		12	
Ekitaldiak (URE)		23, 30	
Balantze orokorra (URE-EUSK. ZERB)			31rako

Hirugarrena.- Egitasmoa burutzeko erabili beharko diren publizitate euskarri guztietan aipatuko da Urdaibai Rugby Eskolak antolatua dela, Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren babesa duela eta EBPB garatzeko diru laguntzak ematen dituzten Bizkiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren aipamenak ere jaso beharko.

Laugarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, hitzarmen honetarako beharko diren diru-partidak egokitzeko ardura hartuko du. Hitzarmen honengatiko aurrekontu osoa 4.102 eurokoa da eta hitzarmena sinatzerakoan emango zaio Urdaibai Rugby Eskola Elkarteari aipatu kopurua diru laguntza gisa. Aurrekontu atalak hurrengoak dira:

- Antolaketa eta monitoreen (15) gastuak	2.000
- Materiala	2.350
- Publizitatea / sariak	1.000
GUZTIRA	5.350

Bosgarrena.- Urdaibai Rugby Eskolak eta Euskara Zerbitzuak, egitasmoaren kronogramaren arabera, gutxienez hileroko batzarrak egingo dituzte eta Urdaibai Rugby Eskola Elkarteak 2014ko abenduaren 31rako egitasmoaren garapenari buruzko txosten bat aurkeztuko du lehiaketa behin bukatuz gero, gastuen zurigarriak barru.

Seigarrena.- Hitzarmen honetan adierazia finkatutako epean betetzeko arazoak sortuko balira, sinatzaileek adostu egin ahal izango dute epeak luzatzea eta diruzko bete-beharrak egokitzea; adostasunik lortzea posible ez balitz, Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren arbitraia ontzat eman dute sinatzaileek.

Eta adostasunaren seinale, agiri hau sinatzen dute bildutakoek.

URDAIBAI RUGBY ESKOLA,

GERNIKA-LUMOKO ALKATEA,

Patxi Bartolomé Marques

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta

EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA,

IDAZKARI NAGUSIA,

Esperanza Uriarte Erdaide

Jon Goikoetxea Etxebarria

III. Eranskina: EPK kanpainarako euskarria



HEMEN SALGAI

euskarazko produktuak

%5eko DESKONTUA
euskarazko produktu guztietan
Abenduaren 1etik 31ra

		ANA OPARIAK Carlos Gangoiti, 6
BEREZI Juan Calzada, 14	AMILOTX San Juan, 25	OBABA Iparragirre 22
AIZU Don Tello, 32	GAUBEKA Don Tello, 3	ZARRA Barrenkalea, 4

www.katalogoa.org
info@katalogoa.org

musika informatika filmak aldizkariak
komikiak liburuak jostailu eta jokoak
gurasoentzako materiala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia




GERNIKA
LUMO
gure sus-iradik